



Arartekoaren 2019R-2320-18 Ebazpena, 2019ko uztailaren 31koa. Horren bidez, EUSTATi gomendatu zaio beharrezko neurriak har ditzan dagokion Erregistro Zibilean jatorrian EAEn jaiotako herritar gisa inskribatutako adingabe adoptatua atzerriko pertsona immigranteei buruzko datu pertsonalen fitxategietatik kentzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak (...)k aurkeztutako kexa bat jaso du; kexa horretan adierazi duenez, ez dago ados EUSTATen jardunarekin, bere seme adoptatua Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko populazio immigrantearen (EPIE) fitxategi baten barruan sartu baitu.

Interesdunaren esanetan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bere semeari (adingabe adoptatua) gutun bat bidali zion, inkesta bat egiteko. Kontuan hartu behar da semeak Espainiako nazionalitatea duela. Pertsona adoptatuen egoera eta beren gorabeherak bereziak dira eta baliteke adingabeak oraindik bere jatorria ez ezagutzea, beraz, maneiatzen den informazioa oso sentibera da.

Sailak adierazitakoaren arabera, galdeketa egiteko estatistika-eragiketaren lagina EUSTATEk eskuratzen du eta, horretarako, udaletako zentsu eta erroldak erabiltzen dira. Sailak jakinarazi zionez, *"las situaciones de adopción internacional y la de los españoles de origen (primera nacionalidad)"* udal-erregistroetatik kentzea ezinezkoa zen, beraz, aukera bakarra inkesta ez egitea zen, idazkian ageri bezala.

Adopzio-espedita kontuan hartuta, kexa aurkeztu duen pertsonaren semea 2006ko urriaren 27az gero Gasteizen jaiota azaltzen da, aurkeztutako biztanleen udal-erroldari buruzko ziurtagiriari eta familia-liburuari erreparatuz, hortaz, interesduna ez dago EUSTATEkin ados. Bere ustez, biztanleen erroldako datuak ustiatzen ditu, baina ez du aurretik izan dezakeen edozein datu aldatu, data horretatik baliozko datu bakarrak aurkeztutakoak baitira. Hala, interesdunaren iritziz, bere semea Gasteizen jaiota dagoela eta Espainiako nazionalitatea duela dioen egoera legala kontraesanean jartzen duen bestelako informazioa ezabatu egin behar da.

Izan ere, inkesta egin duen sailak informazio-gutuna bidali zuen eta berariaz adierazten zen horretan atzerrian adoptatutako pertsonak ez direla talde horren barruan sartzen, beraz, argi dago inkesta egiteko EUSTATEk eskuratu duen laginak akatsak zituela, besteak beste, azaldutakoa.

EUSTATEk akatsa aitortu zuen arren eta, hortaz, adingabea inkesta egin beharretik salbuetsi zuen arren, interesdunak Arartekoari esku hartzeko eskatu zion, interesdunaren ustez, bere semeak inolaz ere ez duelako immigrante izaera eta, horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko populazio immigranteari dagokion fitxategietatik ezabatu egin behar delako.





2. Kexan adierazitako kontuak baloratu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zion EUSTATi. Erakundeko zuzendari nagusiak kexari buruz prestatutako memoria txostena bidali zuen; erantzuna gogoeten atalean aztertuko dugu.
3. Bestalde, EUSTATetik jasotako erantzuna erkatze aldera, Arartekoak Gasteizko Udalari eskatu zion informazioa; erantzun hori ere gogoeten atalean aztertuko da.

Gogoetak

1. EUSTATEko txostenaren arabera, *«Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko biztanleria etorkinari buruzko inkesta» lau urtez behin egiten den eragiketa estatistikoa da, eta horren ardura Enplegu eta Gizarte Politika Sallaren Estatistika Erakundearena da. Xedea, atzerriko biztanleria etorkinaren bizitza baldintzak ezagutzea, aztertzea eta ebaluatzea da, eta Eustatek laginen diseinuaren fasean hartzen du parte, une honetan indarrean dagoen Euskal Estatistika Planaren barruan (2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzko azaroaren 13ko 3/2014 Legea).*

Laginen eskarian, Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, laginak izan behar dituen ezaugarriak adierazten ditu, eta honela zehazten du:

«baldintza hauetakoren bat betetzen duten 16 urte eta gehiagoko pertsonak:

- Espainiako ez den nazionalitatea izatea (EBko hiritarrak izatea edo ez izatea edo jaiotza Espainian gertatu izana edo ez kontuan izan gabe).
- Espainiatik kanpo jaio izana, gaur egun nazionalitate bate do bete badu ere.

Nazionalizazio prozesuen garrantzia kontuan izanda, azken kasu horretan, talde horretara egindako hurbilketa jaiotze lekuari buruzko aldagaiaren bitartez egingo da. Inkestaren sarreran egiaztatuko da kanpoan izandako jaiotza Estatuko biztanleak kanpoan egotearekin erlazionatuta dagoen ala aurretik beste nazionalitate bat dagoela adierazten den, Estatuko nazionalitatea ondoren eskuratuz. Inkesta azken kasu horretan baino ez da aplikatuko, eta beti ere, adopzioak ez badira»."

Kexa aurkeztu zuen pertsonak emandako informazioarekin eta Gasteizko Udalaren erantzuneko informazioarekin bat etorriz, inkesta honetako laginean jasotako adingabeak honako errolda mugimendu hauek izan zituen:

- 2003. urtea: Alta Errusiako nazionalitatearekin eta Errusia jaioleku modura.
- 2005. urtea: datu pertsonalak aldatzea Espainiako nazionalitatearekin eta Errusia jaioleku modura.
- 2006. urtea: datu pertsonalak aldatzea Espainiako nazionalitatearekin eta Espainia jaioleku modura (Gasteiz).





Udalak urtero EUSTATERa igortzen dituen fitxategiak zehaztu ditu, kaltetutako adingabeari buruzko datuak jaso dituen, onartutako protokoloekin bat etorri eta epe zuzenetan; horrenbestez, ulertzen duenez, pertsona hori atzerriko immigrante modura gehitzeko akatsa ez da udal jardunean gertatu.

Izan ere, adingabe horren errolda mugimenduak berriaz jaso dira **“Estatistikako Nazio Institutuko lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumenen Koordinaziorako zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpenean. Horren bidez, udal-errolda kudeatzeko udalei jarraibide teknikoak ematen zaizkie”**.

Ildo horri eutsiz, 5.1.2.2. atalak hala dio:

“En los supuestos de adopciones, y dado que en el Registro Civil se extiende una nueva inscripción por nacimiento, el Ayuntamiento a instancia de los padres podrá optar entre formalizar un alta por omisión o un alta por nacimiento, en este último caso siempre que los padres adoptivos residieran en el municipio en la fecha en la que se produjo el nacimiento del menor adoptado”.

Horrenbestez, 2006. urtetik adingabea Gasteizko udalerrian jaiotako herritar modura ageri da, modu legalean, eta Espainiako nazionalitatearekin; beraz, data horretatik ez du hizpide dugun lagineko parte izateko aurreikusitako betekizunen arteko bat ere ez betetzen, ez baitzuen Espainiakoa ez zen beste nazionalitaterik, eta ez zen Espainiatik kanpo jaioa, inkesta eskaeran agertzen dena gorabehera.

EUSTATEk emandako erantzunean agerienez, interesdunak jaso zuen komunikazioan ere azaldu zen adopzio kasuak ez direla inkestaren esparruaren parte, hau da, inkestaren sarreran ageri zen hainbat inguruabar egiaztatuko zirela, eta horrek inkestan jasotzea edo ez zehaztuko zuela, eta **“adopzio kasuak ez direla inkesta horren parte”**. Azalpena baliagarria izango litzateke lagineko betekizunen bat betetzen duten pertsonen kasuan; nolana ere, ondoren inkestaren ardura duen organoak jaiotza jatorria egiaztatzea, barne hartuz soilik Espainiako nazionalitatea a posteriori jaso dutenen kasuak eta adopzio kasuak baztertuz.

Horixe da kexaren lehentasunezko muina, adopzio kasuetan, espainiar batek adoptatutako 18 urtetik beherako atzerritarrak, adoptiotik, **jatorritik** nazionalitate espainiarra eskuratzen du (19.1 artikulua, Kode Zibilaren 17. artikuluari lotuta), hala, jaiotza Erregistro Zibilean inskribatutakoan, inolaz ere ezingo da a posteriori eskuratutako Espainiako nazionalitate egoeraren barruan edo pareko egoeran egon. Aurreko aurreikuspenen ildo beretik, Nazioarteko adopzioari buruzko abenduaren 28ko 54/2007 Legearen esparruan, adoptatutako adingabeak jaiotza inskripzioa Erregistro Zibilean jasotzen du.





Azken finean, herritarren udal erroldako erregistroari jaiotza lekua aldatu izana jakinarazi ondoren, Gasteizko Udalak EUSTATERa igorritako fitxategi eguneratuaren ondorio datan, aldatutakoa Populazioaren Estatistika Erregistroari igorri behar litzaioke.

2. EUSTATEk bere erantzunean akats bat egin duela aitortu du, honako hau egitean:

“Eguneratze prozesu guztiak aztertu eta gero, egiaztatu ahal izan da akats bat gertatu dela Biztanleriaren Estatistika Erregistroaren eguneratze prozesuan, jaiotze lekuari buruzko aldaketak, akatsik ez badago aldagai hori finkotzat hartzen den arren, Erregistroaren urteroko eguneratze prozesuan eguneratzen baitira.

*Dagokigun kasuan egiaztatu ahal izan da, interesatuak aipatzen duen aldaketa ez zela agertzen udalerrriak (Vitoria-Gasteiz) bidali zuen eta mugimenduak jasotzen zituen fitxategian (MPP**12), baina bai udalerrri berak urte bereko abenduaren 31n bidali zuen erroldaren fitxategian.*

*Mugimenduak jasotzen zituen fitxategian egon ez izanak eragin du akatsa, hori justifikatzen ez badu ere, MPP**12 fitxategian agertzen diren mugimendu guztiak zorroztasunez egiaztatzen baitira eta, hala ere, hirugarren tratamendua aurreikusita dagoen arren, ez da beti posible izaten desberdintasun guztiak eta bakoitza aztertzea, eta lehentasun berezia ematen zaie garrantzitsutzat hartzen direnei edo hain finkoak ez diren aldagaiei dagozkienei. Kontuan izan behar da, gainera, ez dela eguneratze erabat automatikoa egiten, parte handian eskuzkoa baizik, eguneratze erabat automatikoak eragingo lituzkeen akatsak ekiditeko.”*

Egiaztatutako egoera ikusita, EUSTATEk honako neurri hauek hartuko dituela iragarri du, Populazioaren Estatistika Erregistroa eguneratzean horrelako **“okerrak gutxitzeko”**:

“1. Gestioak egitea, Udalek bidalitako fitxategiek (mugimenduei dagokiena batez ere) kalitate hobea izan dezaten.

2. Biztanleriaren Estatistika Erregistroaren eta errolda fitxategien arteko datu pertsonalen alderaketaren azterketa hobetzea, data finkoan.

Horrez gain, Eustaten iritziz, komenigarria izango litzateke “Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko biztanleria etorkinari buruzko inkestak” berak, garrantzitsua dela iruditzen zaigun aldaketa egitea, inkesta honi eta adingabeak esparruaren parte diren beste edozein inkestari begira:

Inkestan parte hartzea eskatzen den gutuna ez zaie adingabeei zuzenean bidali behar, horiek laginaren parte badira ere. Hala denean, gutuna gurasoei bidali beharko zaizkie, adingabeak laginaren parte direla jakin dezaten, inkestaren



helburuak eta horrek dakartzan betebeharrak ezagutu ditzaten eta, beti ere haien tutoretzapean, adingabeek inkestari erantzun diezaioten.”

EUSTATEk, nolana ere, etorkizun aldera bermatu egin behar du kexa honek hizpide duen egoeraren parekoak ez gertatzea, inkestaren parte diren adingabeen gurasoei zuzenduta dagoen inkesta izan arren, adingabe horiek laginean jasota egoteko "kontzeptu" akatsa ebatzita ere, kasu honetan azaldu den moduan, ez dira Espainiatik kanpo jaiotako adingabeak, ezta Espainiako nazionalitatea a posteriori lortu duten beste nazionalitate bateko pertsonak; aitzitik, haien nazionalitatea **"jatorrian"** lortu dute.

3. Kaltetutako adingabea hizpide dugun laginean modu bidegabean jasotzeari buruz ebazpen honen lehen atalean azaldutakoaz gain, aipatu behar da Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen 44.6 artikulua ezarri zuena: *"En los casos de filiación adoptiva se hará constar, conforme a la legislación aplicable, la resolución judicial o administrativa que constituya la adopción, quedando sometida al régimen de publicidad restringida previsto en la presente Ley"*. Horrenbestez, adopzio egoera, Erregistro Zibilera sarbidea izateko kausa gisa, bereziki babestuta dago eta, horren haritik, aipatutako Legearen 48. artikulua ebatzi zuen soilik inskribatuak edo haren lege ordezkariak izango dutela sarbidea edo hirugarrenei baimendu ahalko dietela bereziki babestutako datuak dituzten idazpenen publizitatea.

Laburbilduz, kaltetutako pertsonak ez daukate betebeharririk jaiotza inskripzio eta jatorrizko Espainiako nazionalitatearen kausa den adopzio filiazioari dagokionez publizitatea eman edo hirugarrenei sarbidea emateko; hala, izaera pertsonaleko datuen fitxategien tratamenduak inguruabar horiek kontuan hartu behar ditu.

Inkestetan parte hartzea legalki nahitaezkoa denez, adoptatu izaera daukaten pertsona aukeratuek jakinarazi egin behar dute zergatik ulertzen duten ez dutela inkestan parte hartu behar, hau da, hirugarrenei jakinarazi behar diete adoptatuak direla kaltetutakoa, oker baten ondorioz, lagin baterako hautatu badute.

4. Zuzenbide publikoko ahalmenak garatzeko sortutako edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategien tratamendua abenduaren 13ko 15/1999 Legean ezarri zen, 2018ko abenduaren 7ra arte indarrean zegoena, hemen hizpide ditugun ondorioetarako. Hala, 2.3 artikulua ezarri zuen soilik estatistika helburuetarako balio duten fitxategiak estatu edo erkidego mailako legediak edo estatistika funtzio publikoari buruzko legediak babestuko dituztela, eta xedapen zehatzen arabera arautuko direla, edo lege organiko honetan berariaz aurreikusitakoaren arabera, hala badagokio,

Horren haritik, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ere landu zen.





Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 15/1999 Legea indargabetu zuen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Espainiako ordenamendu juridikora egokitu zuena. Lege Organiko horren 25. artikulua datuen tratamendua, estatistika funtzio publikoaren barruan, esparrura legedi zehatzaren mende jarri zuen, baita 2016/679 Erregelamenduaren (EB) eta lege organiko beraren mende ere.

Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, tratamenduaren arduradunak bermatu egin behar du datuak zehatzak izatea eta, beharrezkoa bada, eguneratuak izatea (4.1 artikulua). Bestalde, pertsona interesdunak eskubidea dauka tratamendu arduradunak zuzendu ditzan interesdunaren datu ez zehatzak (14. artikulua); hala, EUSTATEk, kasuan kasuko izapideak egin ondoren, egiaztatu egin behar du gaur egun bere erregistroetan kaltetua ez dela jatorriko atzerriko nazionalitatearekin agertzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak berak (2019-2022 Euskal Estatistika Planari buruzko ekainaren 27ko 8/2019 Legeak aldatutakoa, datu pertsonalak babesteko araudira eta Europako Estatistika Jardunbide Onen Kodearen printzipioetara egokitzeko) zehaztu zuen estatistika jarduna egokitu egingo dela, besteak beste, objektibotasun, zorrotasun teknikoa eta homogeneotasunaren printzipioetara, definizio eta sailkapen kontzeptuetan (3. artikulua).

Testuinguru horretan, EUSTATEk beharrezko neurriak hartu behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko populazio immigranteari buruzko inkestaren lagina diseinatzeko erabilitako fitxategietatik pertsona interesduna baztertzeko baita, oro har, kasuan kasuko Erregistro Zibilean Espainiako lurraldean jatorrian jaiota bezala ageri diren pertsona adoptatu guztiak baztertzeko ere, hala jakinarazi badiote EUSTATEko Populazio Erregistro Estatistikoak erabiltzen dituen iturriei.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Beharrezko izapideak egin ondoren, pertsona interesduna ken dezan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko populazio immigrante modura ageri den fitxategi guztietatik, dagokion Erregistro Zibilean Gasteiz udalerrian jatorrian jaiotako pertsona gisa ageri baita.
2. Pertsona adoptatuen jaiolekuari buruzko irizpidea oro har berrikustea, betiere pertsona horiek Espainiako lurraldean jatorrian jaio direla jaso bada, dagokion erregistro inskripzioarekin, eta hala jakinarazi badiote Populazio Erregistro Estatistikoak erabiltzen dituen iturriei.

